

ELIZGIZONAK eta MOJAK

Esan bezala, garai horretan elizgizon asko zeuden Oñatin erlijioak garrantzi handia zuelako. Hauen zat ere txokolatea oso-oso garrantzitsua izan zen. Txokolatezale amorratuak ziren elizaren inguruko guztiak

Oñatiko jesuitak aipatuko ditugu orain. Jesuiten eraikina gaur egungo "Pago Uso" elkarte dagoen lekuan kokatzen zen garai haretan. Eta gehientsuenak unibertsitateko irakasleak ziren. Hauek txokolatearekiko zuten debozioa oso handia zen eta hau edatea otoitzarekin parekatzen zuten. Jesuita batek Lazarragataren jauregian gordeta dagoen liburu bat idatzi zuen eta bertan txokolateari eskainitako poema hau idatzi zuen (originala espainolez):



¡Oh divino chocolate!
Es tan santo el chocolate
que arrodillado te muelen,
manos plegadas te baten
y ojos al cielo te beben.

O, txokolate zerutiarra!
Hain zara santua...
ezen belaunikatuta zaituzte ehotzen,
eskuak tolestatuta irabiatzen
eta begiak zerurantz edaten.





Honez gain, Oñatin komentuak ere garrantzia handiko eraikinak izan dira. XVI. mendean 2 komentu garrantzitsu zeuden Oñatin: Santa Anakoa (oraingo antzokia) eta Bidaurretakoa. Historikoki, mojen monasterioak sukaldaren jakintzaren gordeleku eta sorleku izan dira. Txokolatea egiten lehenengotarikoak ere hauek izan ziren. Dokumentu zaharretan ikusten baita txokolate dezente edukitzen zutela komentuetan.

